



18.500 ardi, 700 behi eta 600 behor igoko dituzte gaur Aralarko larreetara

LEITZA ▶

Azken garaipenak mailaz igo du Aurrera

San Cristobalen aurka 4-1 irabazi zuten leitzarrek ▶ 2

ABALTZISKETA ▶ Festa eguna da gaur Larraitzen, Aralarko larreak jai giroan irekiko baitituzte

ARTALDEAK ▶ 38 artzain igoko dira mendira euren ardiekin; bost hilabete egingo dituzte bertan ▶ 6-7

IBON AZPILIKUETA



Txekor jatearen baitan, medikuari omenaldi txikia egin diote herritarrek

BALIARRAIN ▶ Lore saltzaileak, eskulanak eta trikitixa izan ziren herenegun; 165 lagun elkartu ziren bazkarian, pilotalekuan ▶ 3

ALEGIA ▶

Iriarte eta Zubeldia dira 7e Pasako txapeldunak


13 asteburutan zehar, 19 bikotek hartu dute parte guztira ▶ 2



Finaleko une bat. I. AZPILIKUETA



AUTODETERMINAZIOAZ aldaketa garaia



**EUSKAL
HERRIA
GORRIRA**

Maiatzak 1 • 12:00etan
manifestazioa Triangulotik

LAB

TOLOSA ▶

Joaquin Navarro magistratua hil da

1970eko hamarkadan Tolosako epaitegian aritu zen; hainbat liburu idatzi zituen

ERREDAKZIOA

Joaquin Navarro magistratu eta idazle espainiarra hil zen, herenegun, 67 urte zituela. Boterearekin, oro har, eta aginte judizialarekin, bereziki, oso ikuspegi kritikoa agertzeagatik nabarmendu izan da Navarro. 1970eko hamarkadan Tolosako Epaitegian aritu zen eta, 1980tik aurrera, Donostiako Auzitegian aritu zen hainbat urtez. Madrilgo Lurralde Auzitegian ari zen magistratu aspaldian. Euskal Herriarekin izandako harreman bereziaren seinale da *Homenaje a Euskal Herria* liburua argitaratu izana. Beste liburu hauen egile ere bada: *Palacio de Injusticia*; *25 años sin Constitución*; eta *Manos sucias, el poder contra la Justicia*.

1970ean ekin zion karrera judizialari. Senatari aukeratu zuten, Almeriako barrutian. Elkarte Demokratiko Independentearen barruan, PSP alderdiko kide zela. 1978an PSOEko kide egin zen. Almeriari PSOEren zerrendaburu zela, 1979ko hauteskundean Kongresuko diputatu hautatu zuten. Alderdi sozialistarekiko desadostasunengatik, 1980an dimititu eta karrera judizialera itzuli zen, Donostian. Auzitegien eta epaileen jokabidea kritikatzegatik arazoak izan zituen. Hiru isun jarri zituzkion CGPJk, prentsako artikulu batzuetan Auzitegi Goreneko eta Auzitegi Nazionalako epaileei buruz begirunerik gabe aritzea leporatuta.

ALEGIA ▶ PILOTA

Iriartek eta Zubeldiak irabazi dute II. Zazpie Pasa Txapelketa

Garmendia eta Iraola bigarren gelditu dira sailkapenean, Gari eta Beñat hirugarren eta Murua anaiak, laugarren

N. GARZIA

II. Zazpie Pasa Pilota Txapelketa badiu jada irabazleak, izan ere igandean Iriarte eta Zubeldia Artola eta Galarretari gailendu zitzaizkien, 22-20 emaitzarekin.

Herenegun Alegiko Pilotalekuan jokatu zuten lehenengo partidak hirugarren eta laugarren postuak zehaztea zuen helburu. Murua anaiak Gari eta Beñaten aurka aritu ziren eta azkeneko hauek irabazi zuten 7 tantorengatik.

II. Zazpie Pasa Pilota Txapelketa bide luzea egin du otsailaren 3an hasi zenetik. 19 izan ziren izena eman zuten bikoteak guztira eta 13 asteburutan zehar lehiatu dira, larunbat eta igandero jokatu dituzten hainbat norgehiagokatan.

Irabazleak, hau da, Iriartek



7e Pasa txapelketako 4 finalistak. IBON AZPILIKUETA

eta Zubeldiak, txapela bana eraman zuten, baina hirugarren eta laugarren gelditu zirentzat ere izan zen saririk, lau finalistek afari bana irabazi

baitzuten. Beñat Garmendia antolatzaileak azaldu duen bezala, «finala borrokatua izan zen, eta jendea hau ikustera etortzea animatu zen».

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrera lehentasunezko mailara igo da igandean Arkixkilen irabazi ondoren

4-1eko emaitzarekin garaipen itzela lortu zuten leitzarrek etxean

N. GARZIA

Aurrerak, San Cristobalen aurka 4-1 irabazi ondoren, igoera ziurtatuta dauka, oraindik denboraldia amaitzeko bi jardunaldi falta diren arren.

Euriak ez zuen jendea izutu eta igandeko partiduaren garrantzia ezagututa jende ugari hurbildu zen Arkixkilerera.

Arangoa, Bengoetxea eta De Carlos izan ziren goleatzaileak eta denen lanari esker, denbo-

raldi honetan partidarik galdu ez duen talde honen aurka gailendu ziren leitzarrek. Berriozarkoentzat, beraz, galtzen duten lehenengo partida izan zen, eta leitzarrentzat, igoera ziurtatu dien garaipena.

TOLOSA ▶

Musika Eskolan aurrematrikula egiteko epea

Tolosako Udal Musika Eskolan 2007-2008 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea bihar irekiko da eta maiatzaren 31ra arte luzatuko da. Musika eskolan ez dago adin mugarik, lau urtetik aurrera edonork izena eman baitezake. Hainbat instrumentu erakustez gain, solfeo ikasketak eskaintzen dituzte. Argibide gehiago nahi izanez gero ondorengo zenbakira deitu: 943 65 1593 edo Goro-sabel 34.ean dagoen bulegora azaldu, 10:00etatik 13:00etara.

TOLOSA ▶

Langileen Nazioarteko Eguna

Gaur Langileen Nazioarteko Eguna denez, LAB sindikatuak deituta Goierri eta Tolosaldekoek ekintzak elkarrekin egingo dituzte. Urretxutik 10:00etan abiatuko dira eta Tolosan Triangulo Plazan elkartuko dira bi eskualdetakoak. 12:00etan manifestazioa egingo dute Plaza Berriaino eta bertan ekitaldi ofiziala egingo dute.

IBARRA ▶

Partidu zaila irabazi du etxean Ibarra taldeak

Ibarrak etxean 3-2 irabazi zion Candesa Camargo talde kantabriarrari. Goleatzaileak Ion Ander Karrera, Lander Camio eta Unai Labaka izan ziren. David Pradosen lana azpimarratzekoa izan zen, izan ere 3 goletan parte hartu baitzuen. Bestalde, jubenil nazionalak 1-8 irabazi zuen Leioan Gaztelueta taldearen aurka.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

BALIARRAIN ▶ KULTURA

Txekor bazkariak gain, medikuari eskerrak eman zizkioten herritarrek

Lore saltzaileak, eskulanak, 180 kilo txekor haragi eta trikitixa eta panderoaz gain, Javier Puyadena medikuari oroigarri bat eman zioten herritarrek 29 urtetan zehar egin duen lana eskertzeko

ASIER IMAZ

Herenegun txekor bazkaria antolatu zuten Baliarraingo gazteek. 95 biztanleko herri batean 165 pertsona elkartu ziren mahai inguruan. Erantzun handia izan zuen beraz bazkariak. Guztira 180 kilo haragi jan zuten, txekor osoaz gain, beste zati bat lortu beharrean izan ziren bazkaldarrak asetzeko.

Egun guztian zehar izan zen zer ikusi eta eresia Baliarraitzen. Goizean lore saltzaileak eta herritarrek eginiko eskulanak izan ziren ikusgai. Gaur amaitzen den Eider Otaegiren pintura erakusketa ere irekita egon zen udaletxean.

Herrira «borondate handiz» hurbiltzen den Javier Puyadena medikuari ere, «omenaldi txiki bat» egin zien herritarrek. «29 urtez asteazkenero muxu truk» Baliarraitera joaten den «Javier medikuari eskerrak emateko oroigarri bat» oparitu zioten. Bazkaldu ostean herritarrek jarri zuten musika, trikitixa eta panderoarekin.



Herenegun, lore saltzailea, herritarrek eginiko eskulanak eta txekor bazkaria eduki zuten Baliarraitera elkartu zirenek. IBON AZPILIKUETA

GUTUN@K ▶

Langilearen Nazioarteko Eguna

Gaur egungo sistema kapitalista aztertzeko unean, ezinbestez kontuan hartu behar genuke honen izaera patriarkala, non eremu pribatuen kokatzen eta musutruk emakumeok betetzen dugun ekonomia ezkutu oso baten bidez, estatu ekonomian kontabilizatzen ez den aberastasuna sortzen den.

Emakumeok historian zehar beti egin dugu lan, etxean edota etxetik kanpo. Emakumeen ekarpena etxeko ekonomia zein ekonomia nazionalari errealtate bat izan da, baina ez da inolaz ere bere neurrian baloratu. Emakumeok lan merkatuan sar bagaitezke ere, sarbide hau ez da inolaz ere berdina sexuuntzat. Emakumeoi, nota altuagoak izanda ere gehiago kostatzen zaigu lanpostu berrietara sartzea. Gehiengo

handi batean, lan sektore feminizatueta dugu sarbidea, non lan baldintzak kaxkarragoak diren. Modu berean, sektore guztietan emakumeak gara lansari baxuena duten lanpostu okerrenak betetzen ditugunak.

Prekariatatea langileri osoak pairatzen badu ere, zenbait sektorek (emakumeak, etorkinak, gazteak...) era bortitzago batean pairatzen dute. Esaterako, emakumeon kasua gertuagotik aztertuz, langabezia tasa gizonen bikoitza dugula esan genezake. Aitortu gabeko lanak eta ekonomia formaletik kanpo egiten direnak emakumeoi atxiki zaizkigu betidanik. Honela, ez gara ekonomiaren subjektutzat hartuak izaten eta langile bati dagozkion prestazioak (nomina, langabezia, jubilazioa...) ez ditugu jasotzen.

Ekonomia formalean dihardugunak berriz, denbora mugatu eta aldi baterako kontratuekin gaude gehienak, hau kontraturik badugu. Eremu ho-

netan kokaturik gaudenak lanaldi bikoitza pairatzen dugu, oraindik familia zaintzearen ardura emakumearen gain erortzen delako.

Emakumeon eskubideen aitorztan eta bermean oinarrituta egon behar duen errealtate berri bat, duintasunezko errealtate berri bat zor zaigu emakumeoi eta guztion artean lortzea goaz. Emakumeon errealtate sozio ekonomikoaren

azterketa orokorra zein eraldaketa sozialerako bermatu beharreko eskubide sozio-ekonomikoak oinarri izanik, Duintasunaren Taula zehazten ari gara, gure bizi-baldintzak duintze bidean, eraldakuntzarako oinarrien zerrenda dena.

Azkenik, maiatzaren 1 langileen Nazioarteko egunaren gertutasuna ikusita, dei egin nahi diegu emakume guztiak mobilizazioetan parte har de-

zaten, gu ere langileak gara! ozen oihukatzen eta dagozkigun eskubide sozio-ekonomikoak aldarrikatzeko. Lan harreman eta antolaketeak aldaketa sakon bat behar dute. Aldaketa hau gugandik abiatzea posible izan dadin bozgorailua hartu eta indarrez atzera ez egiteko erabakia har dezagun.

MARITXU GARCIA (TOLOSALDEKO BILGUNE FEMINISTA) ▶ TOLOSA

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

iragarki laburrak ▶

LANA
Zerbitzaria. Tolosan taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. Deitu: 635 74 52 91/943 69 43 13.
Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Deitu: 943 69 19 33.
Mantenu langileak.
Udaletxeetarako. 943 44 48 66.
Gidariak. Erakunde publikoetarako. 943 13 45 86.

Tolosako etxe batean barneko langile bezala lan egiteko emakumea behar da
Tel.: 677 591 621

MUNIZIBAL altzariak
• 500 m² bi solairutan
• Bertako okasiozko altzariak
• Katalogoz kanpoko kitapena eta prezio bereziak:
Koltxoak, somier-ak, sofak, lasaitasunerako...
Tel.: 943 65 17 61
San Inazio 2
TOLOSA

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Ederrena aukeratzeko unea

Hauek dira V. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi finalistak; zuen botoek erabakiko dute nork irabaziko duen Villabonako Bidaide agentziak emandako bidaia; hilaren 4ra arte eman dezakezue botoa

ERREDAKZIOA

Azken txanpara iritsi da Hirzak antolatutako V. Argazki Lehiaketa. Aurreko lehiaketetan bezala, oraingo honetan ere oso arrakastetsua izan da desialdia. Hain zuzen ere, 56 argazki jaso ditugu denera. Txoko askotako irudiak iritsi zaizkigu. Euskal Herrikoak bertakoak ugari, eta baita kanpokoak ere, horietatik gehienak Maroko aldekoak. Argazki horien gutxienez erietik, epaimahaiak dagoneko aukeratu dituzte finalistak; orriotan agertzen direnak, hain zuzen.

Orain, zuei dagokizue argazki irabazlea aukeratzeko. Biharrik hasita eta hilaren 4ra arte, gustukoena duzuen irudia hautatu, eta haren aldeko botoa eman, argazkiak duen zenbakia esanez. Hori bai, bakotzak behin baino ezin izango du botoa eman. Bi bide dituzue horretarako: posta elektronikoa eta telefonoa.

Zuen botoei esker lehiaketa irabazten duenak Villabonako Bidaide agentziak emandako bi laguntzako bidai zoragarri bat jasoko du sari. Partehartzaileen artean eta botoa ematen duzuenen artean Hirzako materiala zozketatuko dugu. Hilaren 6an jakinaraziko ditugu irabazlearen eta zozketaren sariadunen izenak.

BOTOA EMATEKO ▶

Nora jo. Posta elektronikoki bidetzeko edo telefonoz eman dezakezue botoa:

▶ Posta elektronikoz: argazki lehiaketarako dela zehaztu, eta zuen ustez argazki onena denari dagokion zenbakia argi azalduz eta harremanetan jartzeko datuak (izena, telefonoa, Nortasun Agria...) jarrita, tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera bidali.

▶ Hirzaren Tolosako egotzara deituta: 943 65 56 95.

Epea. Bihar zabalduko dugu botoatzeko epea, eta hilaren 4a izango da horretarako azken eguna.

Arara. Harpidetun bakotzak behin baino ezin du botoa eman. Zuen datuak argi zehaztu, beraz.

Saria. Argazki lehiaketan botoa ematen duzuen gutxienez artean Hirzako materiala zozketatuko dugu.



Inko Iriarte (Tolosa). «Maroko ipar mendebaldeko kostan arrantzaleak marea jetsi ostean sareak biltzen».




Olatz Irazustabarrena (Alegia). «Korsikara iritsi eta ilargia lehenengo aldiz zubi honen gainean ikusi genuen».



Koldo Seara (Villabona). «Aragiako Pinnioetan hotza pasatzeak menzi izan zuen, paraje ederrak ikusi bakenituen».




Aitor Izaguirre (Tolosa). «Caceres inguruko Granadilla herria ikus daiteke».



Anje Urruzola (Tolosa). «Osaba Priorateko oilbondo, almindro eta mahasti artean zebilen».



Aitziber Makibar (Ibarra). «Erietak desagertzen ari diren honetan, oraingoz Euskal Herrian gehiegiz bilatu gabe aurki ditzakegu».



Iban Zendoia (Azpettia). «Urte bereber bat, Matmata herrikoa, Tunisian».



Nerea Lopetegui (Leaburu). «Marokoko Chaouen herriko etxe baten sarrera da».

ARALAR ▶ ARTZAINZA

Aralarko larreak, bazka gozoa

Enirio-Aralar mankomunitateko larreetara gaurtik aurrera igoko dituzte abereak; ardiak, behorrak eta behiak uda partean gozo ibiliko dira goiko larre finetan

ION MUÑOA

Festa eguna da gaur Larraitzen. Aralarko larreak jai giroan irekiko dituzte. Gehienek behetik begiratuko diete mendiei, baina datozen egunotan, artalde hartu eta 38 artzainek gorako bidea hartuko dute. Ondoren, bost bat hilabetez, goi aldetik ibiliko dira artzain horiek.

Enirio-Aralar mankomunitatearenak dira gaur irekitako larre horiek. Mankomunitate hau XV. mendearen hasieran osatu zuten eta gaur egun 15 udalerri osatzen dute: Batetik, lehen Aralar mankomunitatea osatzen zuten Amezketa, Abaltzisketa, Orendain, Balearrain eta Ikaztegietak. Bestetik, Enirio-Aralar mankomunitatea osatzen zuten Legorreta, Itsasondo, Arama, Altzaga, Ordizia, Beasain, Zaldibia, Gaintza, Lazkao eta Ataunek. Herri horiek guztiak osatzen dute gaur egungo Enirio-Aralar mankomunitatea eta boto bana dute. Ordiziak du lehendakaritza eta, lehendakari-orde berriz, Amezketa da.

Aralar gaineko 3.500 hektarea dira mankomunitatearenak eta larre horietan erabiltzen dituzte gaurtik aurrera igoko dituzten abereak. Baina Aralar mankomunitatea baino gehiago ere bada, eta parke naturalaren 11.500 hektareak, mankomunitateko lurrekin eta mendiaren bizkarretako udalerrietako lurrekin osatzen dira.

Aralar gaineko txabola batean artzain egon ahal izateko mankomunitateko 15 udalerrietako batekoa izan behar du artzainak. Ardi bakoitzeko euro bat pasatxo pagatzen dute eta txabolaren truke ere, canon-a ordaintzen dute. Trukean, txabolaren azpiegitura guztien hobetzeak mankomunitateak egiten ditu. Behiak edo behorrak erabili ahal izateko ere, udalerririk gabekoa izan behar du abeltzainak.

Abereak larrean libre ibiltzen badira ere, ez dute nahi duten lekuan bazkatzerik izaten. Artzain bakoitzak bere eremua du txabola inguruan, Eredu horretan larreak, abarok, itzal-guneak, etab. dituzte. Horregatik ahal duten neurrian, eremu horretan bakarrik erabili behar dituzte ardiak artzainek.

Gaurtik aurrera irekita egongo dira larreak, ofizialki, datorren urteko urtarrilaren 31 arte. Baina artzain gehienak urrian jaitziko dira babesera, larreei deskantsua emanda, hurrengo urtean berriz ere, bazka gozoa izan dezaten.



Gaurko festa ospatu ostean, datozen egunotan igoko dira artzainak Aralarko larreetara. MIKEL ALBISU

18.500 ardi, 700 behi eta 600 behor larreetara

Gaurtik aurrera Aralarra igotzen direnek ganadu asko ikusiko dute lasai bazkatzen, Txindoki ondoko lepotik hasi eta Igaratza aldera arteko larreetan. Geroz eta baserriar, artzain eta ganaduzale gutxiago daude, baina Aralar aldean, maiatzetik urrira arte, ez da abererik falta. Kontrakoa pentsa baliteke ere, azken 20 urte hauetan, Aralarren bazkatzen duten abere kopurua ez da aldatu.

Aurten, gutxi gorabehera, 18.500 ardi igoko dituzte Aralarko 38 artzainek. Duela urte batzuetatik hona, nabarmen jaitzi dira artzainak, baina ez ardiak. Izan ere, gaur egun artzain bakoitzak artalde han-

diagoa dauka; eta horregatik, Aralarko ardi kopuruak nahiko egonkortuta daude. Edozein modutan, gehienezko 20.000 ardiko muga dute ezarrita mankomunitatean.

Behor gutxiago

Ardiek ez bezala, gainontzeko abelburuek izan dituzte gorabeherak azken urte hauetan. Behor eta behientzat mankomunitatean jarrita duten muga 1.400 burukoa da, baina aurtan 1.300 bat buru igoko dituzte. Horietatik 600 inguru behorrak izango dira eta gainontzeko 700ak behiak.

Kopuru hauek oso desberdinak dira hamarraldi pare bat

atzera eginez gero. Adibidez, 1990ean, 125 behi bakarrik ibili ziren Aralarren, aldiz, behorrak 1.000 inguru ziren. Argi ikusten da, bada, behiek nabarmen egin dutela gora eta behorrek berriz beherantz jarraitzen dutela. Arrazoi bila hasita, ganadu bakoitzagatik ematen dituzten diru-laguntzetan izandako aldaketek eragina izan dutela ematen du.

Kopuru hauek Enirio-Aralar mankomunitateko lurretan ibiltzen diren abereei dagozkie. Horiez gain, Aralarren ibiltzen dira ganadu gehiago herri-lurretan eta Nafarroan.

Artzainak 38 txabolatan egongo dira aurten. Mankomunitateak gerorako 35 txabo-

la mantentzea aurreikusten du, baina oraingo artzainak dauden bitartean, 38 txabola horiek izango dira.

Hainbeste abelburu larreetan lasai ibili ahal izateko, eta uda partean ibiltzen direla kontuan hartuta, behar-beharrezkoa da ur-hornikuntza egokia edukitzea. Ildo horretan, azkeneko hamarraldi honetan lan handia egin du mankomunitateak beharrezko lekuetan ur-askak ezartzeko, eta haietaraino ura eramateko.

Hemendik urria aldera arte, bada, ia ezinezkoa izango da Aralarra joan eta ardi, behor edo behirik ikusi gabe itzulzea. Larreak zabalik dira eta abereak larre-gose. ◀

Lantoki ere bada Aralar batzuentzat; basozainak egunero hara eta hona ibiltzen dira mendia zaintzen, artzainak berriz, udaberrian igotzen dira mendira. Mendi bera lantoki duten Jose Antonio Irastorza basozainak eta Jon Harreguy artzainak desberdin bizi dute Aralar; lehenak paisaia mantentzen lan egiten du, bigarrena paisaiaren parte da; baina biek maite dute asko Aralar.

JOSE ANTONIO IRASTORZA ▶ BASOZAINA

«Azken 15 urtetan inbertsio handiak egin dira artzainen azpiegiturak hobetzeko»

1994ko aktuzio-plana azpimarratu du mankomunitateko basozain bakarrak

Jose Antonio Irastorzak (Zaldibia, 1958) ia 23 urte daramatza Enirio-Aralar mankomunitateko basozain lanetan. Ondo asko ezagutzen ditu mendi honetako txokoak eta azken bi hamarraldietan izan diren aldaketak.

Zu lanean hasi zinenetik asko aldatu al da Aralar?

Azkeneko 15 urtetan batik bat, inbertsio handiak egin dituzte horko erabiltzaile nagusiak diren artzain edo aberezaleen azpiegiturak hobetu aldera. 1994an, aktuzio-plana egin genuen, herri bateko arau subsidiarioaren nolabaiteko balio-kide litzatekeena. Mendi horren diagnosis egin genuen eta erabaki nola kudeatu eta antolatatu behar zen mendi hori. Eta, hain zuzen ere, aktuzio-plan horrek markatu du geroz-

tik egiten joan diren aldaketak.

Zein da aktuzio-plan horren helburu nagusia?

Mankomunitateko lurrek ganadu kopuruei dagokienez, zer jasagarrintasun duten jakitea eta horren arabera antolatzea lurren ustiaketa, hori da helburu nagusia; betiere ingurugiroari kalterik egin gabe. Horretarako ganadu mugak ezarri genituen: gehienez 1.400 ganadu handi (behor eta behi) eta 20.000 ardi. Horrekin batera 35 artzain-txabela mantentzea aurreikusten da plan horretan.

Zer moduzko larreak dira Aralarako artzaintzarako?

Oso onak. Hori esaten dute artzain guztiek. Gainera, aktuzio-planari lotuta, aska aldetik asko hobetu ditugu, eta gaur

egun ganaduek badute nahiko ur. Horretaz gain, neguan jais-tera behartuta daudenez, larreek atsedena hartzen dute eta larre finagoa izaten da hurrengo udaberrian. Lehendik ere oso onak izaten diren larre naturalei ur-azpiegitura eta neguko atsedena gehituz gero, gaur egun, Aralarako larreak oso erakargarriak dira.

Zein da zure lana mankomunitate barruan?

Aipatutako aktuzio-plan hori betetzen joateko ardura nirea da. Urte hauetan guztietan azpiegituren hobetze hori koordinatzen aritu naiz. Eta horrez gain, noski, bijilantzia ere egin behar izaten dut: motorrak direla, autoak direla... Baina alde horretatik, Aralarren nahiko zorte badugu, jendea oso kon-

tzientziatuta baitago eta orokorrean ez baita arazorik egoten.

Aralar ondare naturala ere bada.

Bai. Parke naturala izateaz gain, Europako 'komunitate interesko gunea' ere bada. Aranzadirekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean ari gara aztarna arkelogikoa nahiz lurpeko zuloetan dauden aberastasun biologikoak aztertzen. Nire ustez, geroz, gerora begira, ondare horren berri ondo jasota jartzen badugu bakarrik, lortu ahalgo ditugu Europa aldeko laguntzak.

Mendiko pistek zeresana ematen dute beti.

Bai, ez da gai erraza. Garbi dago aurrera begira, nekeza izango dela pistarik ez duten txaboletara artzain berriak



I. MUÑOZA

ekartzea. Baina parke naturalaren barruan egonda eta Aralarrekin dituen ezaugarriak direla-eta, ez da erraza pistak egitea.

Zer etorkizun ikusten diozu Aralar artzaintzari?

Azken hogeitun urteetan izandako bilakaera ikusita, nik uste dut beste hogeitun urtetarako artzaintza ziurtatuta dagoela Aralarren. Ni baikorra naiz, gai horri dagokionez. ◀

JON HARREGUY ▶ ARTZAINA

«Bukatu ziren erabat goran egote haiek; gaur egun gora eta behera ibiltzen gara»

Beheko eta goiko lanak uztartu behar direla-eta, joan-etorrian ibili behar izaten du

Jon Harreguy (Usurbil, 1976) artzain gaztea Aralarra iritsi den azkenetakoa da. Bosgarren aldiz igoko da aurten goiko larreetara.

Nolatan iritsi zinen Aralarra?

Lehenengo erosi genuen artaldea Aralarra zen; eta hara joaten jarraitzen dugu. Bestalde aukera handiak ere ez daude hemen inguruko mendietan. Mendiek txabolekin funtzionatzen dute; hau da, txabola bakoitzeko artalde bat dago. Eta niri Aralarra txabola bateko artaldea erostea tokatu zitzaizkidan, hantxe jarraitzen dugu.

Non duzue txabola?

Igaratzatik beheaxeago. Beas-kin izena du txabolak.

**Nola joaten zarete txabolari-
no?**

Autoa iristen da haraino Nafa-

rotik bueltan joanda. Hemen-dik abiatu eta Etxegarartetik barrena Altsasura joaten gara; handik Uharte Arakildik gora San Migela; gero Guarda Etxera eta handik pistaz Igaratzatik barrena txabolaraino: Gasoil eta denbora dezente behar ditugu joan-etorrietarako.

Noiz igotzen zarete gora eta noiz jaitsi behera?

Maiatzaren 20tik aurrera edo, joaten gara normalean. Behera, berriz, urriaren erdi aldean jaisten gara. Bost bat hilabete egiten ditugu goran.

Zer bizimodu egiten duzu han?

Mendira joan eta beste hilabete edo hilabete eta erdian gazta egiten dugu oraindik. Gero ardiak antzutzen ditugu eta ekainaren erdi aldean ahariak

botatzen dizkiegu. Eta ume-hartze handienak bukatzen ditzutenean, udako beheko lanak hasten dira, belar-lanak alegia. Eta orduan gora eta behera ibiltzen gara. Gaur egun bukatu dira erabat goran egote horiek: belar-lanak direla, hemen beheko gaztak saldu behar direla...

Aralarko bizimoduaren alde-rik onena zein da?

Bake galanta sumatzen dut han. Hemengoarekin, beheko-arekin, ahaztu egiten zara; ez dago guztiz ahazterik, baina deskonektatu egiten duzu, konturatu gabe. Han nabiltenean ikaragarriko patxada sumatzen dut. Gainera, neguan batere etenik gabeko lana izaten dugu ardiekin behera jais-ten garenetik atzera igo arte.

Eta goiko patxada hori, nola-bait neguan pasatakoaren opari moduko bat da.

Eta txarrena?

Deskonektatzen dudanean, berriro etortzen diren buru-hausteak; belarrak igartu behar ditugula, edo behera joan behar dugula, eta horrelakoak... Gu adibidez bikote bat gara; eta lan handia pila-tzen zaigu belar garaian. Gora eta behera ibiltzen gara eta antzera beste artzain gehientxo-ena ere. Bukatu ziren lehena-goko kontu haiek; erabat goran egote haiek alegia; bakarren batzuk badaude oraindik, baina...

Zer etorkizun ikusten diozu Aralar artzaintzari?

Iruiditen zait artzaintza ez dela galduko Aralarren. Txa-



I. MUÑOZA

bolak gutxituko dira segurue-nik, zeren oraindik badaude makina bat txabola biderik ez dutenak; eta gaur egun motza geratzen da biderik ez duen txabola batera aberekin iritsi beharra. Horietan dauden artzainek jarraituko dute, baina bukatzen direnean zaila izango da artzain gazteak biderik gabeko txabola horietan sartzea. ◀

AGENDA ▶

DEIADIAK

Tolosa. LABek deituta, Langilearen Nazioarteko Eguna dela eta, manifestazioa izango da 12:00etan Triangulotik aterata.

Abaltzisketa. Larreen irekiera egingo dute gaur, 10:00etan, eta trikitilariak eta Tolosako gaiteroak ariko dira; 11:00etan, Mikel Almandozen zaldi-hezte erakustaldia izango da. Ondoren, Sarako Xanoren makil-dantza emanaldia eta Nafarroa eta Iparraldeko abeslari taldeak ariko dira. Gero, Alaitz Sarasola eta Bixente Gorostidiren eskutik bertso saioa izango da. Hauekin batera izango da Mari Jose Sardon harri-jasotzailea. 17:00etan, egunari amaiera emateko, erromeria izango da Jexuxen jaspanarekin.

ZINEMA

Tolosa. 300 filma izango da ikusgai, 19:30etik aurrera Leidor aretoan.


GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrata
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Dantza erakustaldia Leidorren

TOLOSA ▶ Gipuzkoako Dantza Profesionalen elkarteak antolatuta, Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, Dantza Gala izan zen herenegun ikusgai Leidor aretoan. Denera, maila handiko 8 ikuskizun desberdin izan ziren ikusgai taula gainean, arlo askotariko dantzak jorrratu zituztelarik. **IBON AZPLIKUETA**



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Artzaia eta bakurra. Non ote ditu ardiak?
 Urte askoan Ekhi.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza **Harpidedunen txokoa**

HITZAko harpidedun guztien artean
 Ostegunetik Igandera arte **egunero** Garagardo azokan
 afaltzeko txartelak zozketatuko ditugu!

Zorte on eta hadi egon!

3 karpa
 Jaki tipikoak
 24 garagardo mota
 5 KALIMOTXO ezberdin
 3, 4, 5 eta 6

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea